



**Euskadiko onenen
artean lehiatu ziren
kadete mailako
Leizaran eta Urnietako
eskubaloitza taldeak** / 12

**Eskian trebatzeko
ikastaro bikoitza
antolatu du
Zanpatuz mendi
elkartek** / 13

**Inauterietako
egitaraua aurkeztu du
Andoaingo Udalak.
Asteburuan, Puska
Biltzea Leizotzen** / 15



***"Baina ez tarriz sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz"***

Andoainen eta Urnietan kantu-erronda bana egingo da, Santa Ageda bezperan / 5

AIURRI

**MATRIKULA
OTSAILAREN 2TIK IZARRA**

**EGAPE
IKASTOLA**
urnietarren eskola
publikoa

943009275 HLH/EIP
943899425 DBH/ESO
www.egape.eus



Ezagutu gaitzazu!



Bidean traba egiten zuen

Urtarrilaren 27an, goizeko 06:30ak aldera, kamioi batek guraizearena egin, alderik alde, traba egiten geratu zen. Eta ez edozein tokian: N1 eta A15 errepideen sarbidean gertatu zen ezbeharra, Sorabillan. Garabiaren laguntzarekin altza zuten zama. Behar baino abiadura handiagoan zetorren Aduna aldeko industrigunetik eta autobia hartzeko bihurtunean zama galdu zuen.



AIURRI



AIURRI

Frantsesa eta ingelesa, aukeran, Hizkuntza Eskola Ofizialean

Matrikulazio-epea otsailaren 2an abiatuko da, 9ra bitarte. Andoaingo biztanleek Tolosan egiteko aukera dute

Erredakzioa ANDOAIN

Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikula librea egiteko aukera zabaldu dute. Andoaingo ikasleek Tolosako eremura atxikituta daudenez, hango ikastetxearen araberrako plangintza darraite.

Matrikulazio-epea otsailaren 2an abiatuko da, 9ra bitarte. Honatx, deialdi honetan zabaldu dituzten hizkuntzak eta eskaera-mailak:

- Frantsesa: A2 - B1 - B2.
- Ingelesa: A2 - B1 - B2 - C1.

16 urte 2026an betetzea izatea da ezinbesteko araua. Eta prezioa 36,18 eurokoa da.

TOLOSAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Helduei hizkuntzen irakaskuntza eskaintzeko erregimen berezia duen ikastetxe publikoa, 2008tik martxan dago.

- Paper kalea 1, 3.
- Berazubi auzoa. Tolosa.
- eitolosahoe.hezkuntza.net
- info@eitolosahoe.net
- 943 89 96 22.



Tolosako Paper Eskolaren kanpoadea. PAPER ESKOLA

Eserlekuak, pasealekuan

Ama Kandida eta Gudariaren etorbidea eremuen eraberritzea erabatekoa izaten ari da. Azpiegitura lanak egin ostean, oinezkoentzat erabilgarri diren eserlekuak jartzeari ekin diote. Denbora luzez, lanak medio, ez zen pausalekurik inguru haietan eta, orain, berriak ikus daitezke. Eskertuko dute, besteak beste, adinekoen egoitzako bisitariek.



AIURRI



AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbifue Ugartemendia. idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietako).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.





Zorionak, Joxe!

Gabonen osteko Aiurrin argitara eman zuten senideek Joxe Belauntzaran Cortadiren zorion-agurra. Izan ere, ehun urte bete zituen abenduaren 26an. Egun hauetan,

Andoaingo Udalaren izenean, bisitaldia egin diote Andoni Alvarez alkateak eta Haizea Barandiaran zinegotziak. Argazkian, Joxe eta etxeokokin batera.

Urteko lehen batzarraldiak, ostegun honetan

Bi udalerrietan egun eta ordu berean deituta daude: ostegun honetan, 19:00tan hasita. Andoaingoak izango du eraginkortasun handiagoa, 2026ko aurre-

kontu-proposamena eztabaidatuko baita bertan. Asteotan negoziazio-fasean murgilduta daude ordezkariak duten alderdiak eta gobernu taldea. EH Bilduren eta Podemosen oniritziarekin nahikoa litzateke baina azken urteotan EAJ-PNVk ere babestu ditu kontuak. Ikus-

teke dago sozialisten eta jeltzaleen ikuspegia zein den aurretan. Urnietan, bestalde, aurrekontuen bidea eman zioten 2025eko azken batzarraldian. Oraingoan, hainbat gaien artean, herrian izandako azken eraso matxista salatzeke adierazpena babestuko dute.



Odei Barroso rapeatzen. ØDEI

Rap musikaren sorkuntzan trebatzeko tailerra

Euskarazko tailerra, Beterri-Buruntzako udalerrien eskutik. Izen-ematea hilaren 31n amaituko da

Buruntzaldea EUSKARA

'Hitza askatu, erritmoa markatu': 12 eta 16 urte bitarteko gazteek 'Beat-Eroak' rap tailerrean parte hartzeko aukera dute. Otsailean eta martxoan izango da, eta udalerrri bakoitzean bina saio egingo dituzte. Aurrenekoan, Ødei Barroso rapero eta bertso-lariarekin arituko dira gazteak, eta hitza landuko dute: oinarri musikala aukeratu, eta rap letrak lantzen lagunduko die Ødei artistak. Aurreneko saio hori otsailean izango da: Urnietan, otsailaren 9an; Andoainan, otsailaren 19an.

Tailerraren bigarren saioan, Ødei ez ezik, Telmo Trenor DJ eta ekoizlea ere izango da, eta guztien artean emango diote forma egindako lanari: aukeratatutako oinarri musikarekin eta osatutako letrekin, kanta sortu eta grabatuko dute. Martxoan izango da bigarren saio hori: Urnietan, martxoaren 2an; Andoainan, martxoaren 26an.

Udalerrri bakoitzean, gehienez ere, 30 gaztek hartu ahal izango dute parte. Izen-ematea datorren urtarrilaren 31n amaituko da. Webgunea: euskara.buruntzaldea.eus.

MATRIKULA LIBREA

HIZKUNTZA ETA MAILA ESKAINTZA **2026**

Frantsesa: A2 - B1 - B2
Ingelesa: A2 - B1 - B2 - C1

Matrikula eskaera egiteko epea:
Otsailaren 2tik 9ra
Gutxienezko adina:
16 urte 2026an betetzea

Prezioa:
36,18€

Informazioa
www.eitolosaheo.hezkuntza.net
info@eitolosaheo.net - 943 89 96 22



NOAUA

Transmaribibolloen aurkezpena

Buruntzaldeko transmaribibolloen aurkezpena egingo dute Usurbilen, ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etan hasita Potxoenea gunean. Ekitaldiak bi zati izango dituela iragarri dute; batetik, mugimenduaren aurkezpena egingo dute eta, segidan, Anuk eta Eleneren ahotsekin eta musikarekin girotutako luntxa.

POSTONTZIA

LAB SINDIKATUA

Pertsona migratuen erregularizazio masiboa: eskubideak gauzatzeko eta beste askotan aurrera egiteko abiapuntua

Urtarrilaren 27an, asteartearekin, Ministroen Kontseiluak Espainiako Estatuan bizi diren pertsona migratuen aparteko erregularizaziorako Errege Dekretua onartu du.

Baldintza gisa, pertsona migratuek frogatu beharko dute gutxienez 5 hilabetez Estatuan bizi izan direla, 2025eko abenduaren 31 baino lehenagotik, eta aurrekari penal larriak ez izatea.

Dirudienek, izapidetzea premiazkoa izango da. Eskabideak onartze hutsak urtebeteko behin-behineko bizileku-baimena emango du, lege lan egiteko eta oinarritzko beste eskubide batzuk eskuratzeko aukera emango duena, hala nola osasun-arreta. Epe hori amaitzean, ohiko bizileku-baimenak eskatu ahal izango dira. Eskabidea aurkeztearekin batera, eskatzailearen aurka egon litezkeen itzulketa-prozedurak edo kanporatze-aginduak etengo dira, arrazoi administratiboengatik edo baimenik gabe lan egiteagatik ezarriak izan badira.

Espainiako Estatuan, administrazio-egoera irregularrean dauden gutxi gorabehera milioi erdi pertsona neurri honen onuradun izango dira.

Espainiako Gobernu zentralak egin duen bederatzigarren erregularizazio masiboa da hau; azkena duela 20 urte baino gehiago egin zen, 2005ean.

LAB sindikatutik, erregularizazio honen lehen balorazio gisa, honakoak azpimarratu nahi ditugu: gaur emandako urratsa Regularización YA! plataformaren garaipen sozial eta herrikoia da. Mugimendu migratu antolatuen borrokaren eta presio iraunkorraren emaitza da, Estatu mailan 700.000 sinadura baino gehiago biltzea lortu duen lan erraldoiari esker. Euskal Herrian, Regularizazioa Orain! ekimenak –ehunka eragile, erakunde eta kolektiborekin batera, tartean gure sindikatua– bultzada handia eman dio ekimen honi.

Dekretu hau ez da ezerezetik sortutako zerbait. Denbora behar izan du iristeko, eta ez da kasualitatea iritsi den unea: faxismo globalaren gorakada, munduko gobernurik boteretsuenaren aldetik pertsona migratuen aurkako eraso bortitza, eta diskurtso eta praktika arrazista, matxista, xenofobo eta homofobo hedapena.

Euskal Herrian ez dugu Madrilgo gobernuaren erabaki

partzial eta interesatuen menpe bizi nahi. Subiranotasuna nahi dugu, eta guk hartu nahi ditugun erabakiak hartzeko baldintzak, eskaeren kudeaketatik harago doazenak: hemen bizitza egitea erabaki duten auzokide migratu eta/edo arrazializatuek duintasunez, justiziaz eta eskubide guztien aitorzarekin bizi ahal izateko behar diren baliabide, bitarteko eta azpiegituren norabidea erabakitze ahalmena.

Erregularizazioa izapidetzeko onartzeak justizia sozialeko urrats bat eta zor historiko baten aitorza dakar. Pertsona hauek ez dira inoren onuradun hutsak: beren eskubideak modu sistematikoan zapalduak izan diren subjektu aktiboak dira, horrela interesatzen zelako.

Erreforma honen alderdi positiboetako bat da orain arte erabakigarria izan den bizileku-baimenen eta lan-kontratuaren edo kaudimen ekonomikoaren arteko lotura historikoa apurtzen duela. Hori garrantzitsua da –kontuan har dezatela Pradalesek eta Chivitek–: pertsona migratuak ez dira erabili eta botatzeko lan-indar hutsa.

Oraindik zehaztu gabe daude funtsezko alderdiak, hala nola egonaldi-denbora egiaztatuko duten erakundearen arteko koordinazioa eta autonomia-mailan, Atzerriarren Bulegoen bidez, ezarriko diren prozedurak. Kezka dago kudeaketa benetan erraza izango ez delako, eta berriz ere oztopo burokratikoak, arrakala digitalak edo praktika baztertzailak errepikatze arrikuagatik.

Neurri hau Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako administrazioen aldetik baliabide egokiez lagundu behar da, pertsona migratu eta/edo arrazializatuen aurkako jazarpena eta estigmatizazioa –profil etniko-arrazialeko kontrolak, polizia-abusuak edo etxebizitza-arrazakeria, besteak beste– geldiarazteko, eta horren ordez erregularizaziorako benetako laguntza instituzionala bermatzeko.

LABetik berresten dugu lan-arrazakeria salatze eta Hego Euskal Herriko lan-zentroetan pertsona migratu eta/edo arrazializatuen eskubideak defendatzeko dugun konpromisoa, milaka langileren lan- eta bizi-baldintzak duintzeko lehen urrats gisa.

Lanaren erregularizazioan eta kontrolan hobekuntzak eskatzen ditugu: benetako eta egiaztatutako kontratuak, Gizarte Segurantzaren alta zuzenak, lanaldiak eta atsedenen errespetatzea, Lan Ikuskaritzaren jardun eraginkorra, hitzarmen kolektiboen betetzea eta laneko osasunerako eskubidearen aitortza, bereziki etxeko eta zaintzako lanetan bezalako sektore prekarizatuetan.

Erregularizazio honek pertsona guztientzako gutxienezko oinarri komun izan dadila, elkarrekin aurrera egiteko xantaiarik eta mehatxurik gabe, antolakuntza kolektibo eta ekingintza sindikal askatzaile baterantz; lan-arrazakeriarik gabe, eskubide eta aukera berdinekin guztiontzat.

Gure konpromisoa argia da: erregularizazio honek eskubide horiek benetan gauzatzeko aukera emango duela bermatuko dugu, beste askoren abiapuntu gisa. Euskal Herria harrera-herria izan dadin, non “dei-efektua” justizia, duintasuna, aitortza, erreparazioa eta aukera-berdintasuna eskaintzen dituen lur batera egindako deia izango den, pertsona guztiontzat.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Santa Ageda bezperako kantu-erronda

Otsailaren 4rako kantu-errondak iragarri dituzte Andoainen eta Urnietan. Andoainen aste honetan egin dituzte entseguak, Larramendi Bazkuna elkartekoek. Urnietan, hilaren 3rako prestaketa-saioa iragarri du Kantazaunek

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Herriko herri eta txoko askotan bezala, makil-kolpez beteko dira Andoaingo eta Urnietako kaleak, datorren otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatzeko. Andoainen Larramendi Bazkuna da antolatzailea eta Urnietan, aldiz, Kantazaun.

Andoaindarrak izan dira entseatzeko lehenak. Astearen hasieran bi egin zituzten Anbrosia Olabide erakinen kanpoaldean. Datorren asteazkenean, arratsaldeko 18:00tatik aurrera, Etxeberrieta plazatik abiatu eta Elizondo tabernan amaitzeraino.

Urnietan

Kalez kale kantuan ariko dira otsailaren 4an, San Juan plazatik 19:00tan abiatuta. *"Baina ezta ezarritako gogoz, ta kanta nahi degu gogoz"*, dio kantu eza-gunak. Bada, erronda behar bezala prestatzeko entsegua deitu dute: hilaren 3an, 18:30ean hasita, Kiroldegiko gelan.



Kantu-erronda, Urnietan, iaz. AIURRI



Elizondo tabernan amaituko da Andoaingo kantu-erronda. AIURRI

KORRIKA

ALBISTEAK AEK

Unitate-didaktikoen aurkezpena



Aurkezpen-ekitaldia egin zuten aurreko astean. KORRIKA

AEKk 24. KORRIKAREN unitate didaktikoak plazaratu ditu, Euskal Herriko Ikastolekin elkarlanean. Besteak beste, helburu dute euskararen erabileran eragitea eta euskal kultura transmititzea. Unitate didaktiko horiek dagoeneko KORRIKAREN webgunean daude eskuragarri, gero Euskal Herri osoko ikastola, eskola eta euskaltegietan zabaltzeko. Bi motatakoak dira: batetik, ikastetxeetarako ikasmaterialak, Euskal Herriko Ikastolekin elkarlanean sortuak; horiek adinaren arabera sailkatuta daude, Haur Hezkuntzatik Batxilergora. Bestetik, euskaltegietarako atazak, AEKren Didaktika Sailak prestatuak; horiek mailaka antolatuta datoz, A1etik C1era. Azpimarratzekoa da materialetako bat berezia dela: diseinatuta dago entzumen arazoak zailtasunak izan ditzaketen pertsonen erabili ahal izateko. Unitateok hainbat berrikuntza dakartzate, betiko helburuak izan arren: euskararen aldeko jarrera zabaltzea, gure hizkuntzarekiko kontzientzia suspertu eta haren erabileran eragitea, euskal kultura transmititzea eta bertoko erreferente kulturalak ezagutaraztea; baita, nola ez, KORRIKA iragartzea ere.



Unibertsitate Orientaziorako Azokak

EHUazoka 2026



DONOSTIA

Urtarrilak 31

VITORIA-GASTEIZ

Otsailak 7

BILBO

Otsailak 14



Aitortza, odol-emaileei

Adolfo Merideño Barras, Cristina Maria Da Costa Peri eta Axier Alkain Aguado odol emaileek jaso dute aitortza, 25 alditan odola eman dutelako. Urnietako odol emate egunarekin batera egin zuten aitortza-ekitaldia, joan den ostiralean, Gaztelekuan



Edu Villar eta Adolfo Merideño. AIURRI



Cristina Maria Da Costa Peri. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Jorge Segurado Urnietako alkatearen alkatearen, Consuelo Frutos Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Consuelo Frutosen, Izaskun Miner Urnietako Odol Emaileen Taldeko kidearen eta Luke Goñi Gipuzkoako Odol Emaileen elkarte

ordezkari eta erizainaren eskutik jaso zituzten esker oneko oroigarriak. Frutosek hiru herrikideen eskuzabaltasuna goraiatu zuen, "itxaropena eta bizitza ematen duzue, eta horretaz jabetzen gara odola behar dugunean batez ere". Seguradok, Gipuzkoako Odol Emaileen El-

karteari eta Odol Bankuari luzatu zieten esker ona. Azkenik, Goñik, gogorarazi zuen odol emate bakoitza, beharra duten hiru pertsonentzat doala, eta erabat pozgarria dela odol emaileek agertzen duten jarrera altruista, are gehiago "materialismoa, norberekeria eta bihoz-

gabekeria gero eta gehiago zabaltzen ari diren gizartean".

Beste behin, Urnietako odol emaileen talde antolatzaileak bikain asko egin zien harrera odola ematera hurbildu ziren urnietarrei. Zintzo asko aritu ziren sukaldean eta medikuaren eta erizainen laguntzaile gisa Santi Sanchez, Antton Lekuona, Maria Eugenia Rodriguez eta Izaskun Miner.

51 odol-emaile bertaratu ziren, horietatik bost lehen aldiz.

Eskuzabal aritzen dira, anonimotasunetik

Adolfo Merideño Barras, Cristina Maria Da Costa Peri eta Axier Alkain Aguado odol-emaileak nabarmendu dituzte aurten, esan bezala. Cristina Da Costak, 35 txandetan eman duela odola zehaztu zuen. "Portugaldarra naiz jaiotzez, eta han ere herriz herri ibiltzen direnez odola biltzen, gaztetan, 10 bat alditan eman nuen, ahizpak animatuta. 16 urte dira Urnietara heldu nintzela, eta ohitura horri eutsi izan diot hemen ere. Modurik naturalenean joaten naiz horretara; jarrera horrekin joan behar dela iruditzen zait. Premiazkoa du odola gizarte honek, eta ahalmena dugun guztion betebeharra izan beharko luke".

Da Costak kontzientzia hantziagoa nahi luke gizartean. "Is-tripu latza eta mediatikoa gertatzen denean, egunotan Kordoban trenekin bezala, orduan bai, jendetza bertaratzan da ospitaletara bere odola eskainiz. Halako inpaktu sozialeko ezer ez dagoenean, berriz, ematen du ez dagoela beharrik. Baina odol bankutik alarma piztu digute

azken aldian, eta ez da oso ulergarria kontraste hori".

Gazteen artean ikusten du gabezia Da Costak, batik bat: "ez dago nahi adina zabaldua odola ematearen praktika gaztedian, eta ez dakit zergatik ote den: alferkeriagatik, kontzientzia faltagatik, urrun ikusten dutelako odola beharraren kontu hori, edo besterik gabe, inork ez dielako behar bezala informatu edo animatu".

Adolfo Merideño izan da nabarmendu duten odol emailetako bat, aurten. "2006an aldatu ahal izan nuen lantokia eta ordutegia, eta harrezkeroztik ematen ari naiz odola. Urtean lau txandetan ematen saiatzen naiz. Gustura etortzen naiz, etxean ez dut nagiak astindu beharrik izaten hona etortzeko. Ez naiz inondik ere beldurtia, ez dit hozkirik ematen orratzak, eta di-da eman, antolatzaileek eskaintzen dizuten kafea hartu, pintxoaz gozatu, eta etxera ostera! Gauza berbera egitera animatzen dut inguruko jendea. Modu anonimoan, zure odolak hiru pertsonen bizitza salbatu dezakezula, edota behintzat beren ongizatean lagun diezaiekezula jakiteak, horrek eragiten dizun satisfazioak ez dauka preziorik!".

Merideñoren emazte Edu Villarrek ere ostiralean hartu zuen hitzordua, odola emateko. Lehenengo aldia zen bere kasuan. "Senarrak bezala, lan-ordutegiaren aldaketa itxoin behar izan dut odola emateari ekiteko. Aurreneko aldia izateak beti eragiten dizu halako urduritasun-puntu bat, baina egia esan, ez zait batere kostatu".



Izaskun Miner, Luke Goñi, Jorge Segurado, Cristina Maria Da Costa, Adolfo Merideño, eta, Consuelo Frutos. AIURRI



Santi Sanchez, Antton Lekuona, Maria Eugenia Rodriguez eta Izaskun Miner, laguntzaileak. AIURRI



Zazpikotea, Plazido Muxika plazako joka-lekuan: Luis Mari Rivero, Kima Bes, Joaquín Aira, Milutxa Riguera, Joxe Maria Campos, Enrique Campos eta Pedro Ramos. AIURRI

Petanka jokoak batu ditu

Petanka jokoak badu parrokia fidela Urnietan. Zazpi-zortzi lagunez osatutako kuadrilla Plazido Muxika plazan biltzen da astegunetan, arratsaldero. Jaurtiketa zehatzean oinarritzen den jokia da petanka, eta liskarrik gabe igarotzen dituzte arratsaldeak

Xabier Lasa ANDOAIN

Luis Mari Rivero, Kima Bes, Joaquín Aira, Milutxa Riguera, Joxe Maria Campos, Enrique Campos eta Pedro Ramos topatu genituen joan den astelehenean, Plazido Muxika plazako jokalekuan. Izan egun euritsu eta petrala, izan eguzkitsu etzia, plazako estalpean, hantxe jarrita daukate hitzordua arratsaldeko 16:30ak aldera. Bi orduko saioak egin ohi dituzte, normalki.

Petanka leku lauetan jokatzeko da, bola metaliko batzuekin eta bolitxe batekin. Jokalariak nork bere bola metalikoa behar du eduki, eta funtsean, hura jaurti eta bolitxe gorritik ahalik eta gertuen utzi behar da. Nor gertuago jaurti ote duen, zalantzak sortzen direnean, metroa erabiltzen dute eta hor konpontzen

dira egon zitezkeen xextra guztiak. Baketsua da, jokia, hortaz.

Kima Bes jokalarietako batek adierazi digunez, ez da dohain berezirik eduki behar petanka-jokalaria izateko: "jokoa entre-

tenigarritzat jotzeaz gain, lagun-giroan, inongo ahalegin fisiko berezirik eskatzen ez dizun lehian aritzeko gogoia eduki, besterik ez da behar". Terapia gisa primeran datorkiela gehitu du.



Kima Bes, jaurtitzeko prest. AIURRI

"Etzetik ateratzeko eta aitzakia polita edukitzen dugu".

Joko guztien antzera, petanka ere jokalarien artean indarrak edo abilidadea neurtzeko asmatu bazen ere, Besek esan digu lagun giroa dela nagusi beraien artean.

Jokalari xumeak, Plazido Muxikan elkartzten direnak

Aldi berean, Kima Besek aitortu du nahiko jokalaria amateurrak direla, egundoko zaletasuna dagoen Frantziako estatuko jokalaria "profesionalen" aldean. "Guk lurrean biraka botatzen dugu bola. Frantsesek, oso teknika zaindua daukate eta marabillak egiten dituzte bolarekin; airean gora botatzen dute, eta oso neurtuta edukitzen dute non eroriko den. Azken batean, bi

helburu nahi izaten dituzte lortu: batetik, bolitxetik gertu utzi bola plast!, eta bestetik, bidean aurkarien bolak jo eta horiek bolitxetik urrundu".

700 gramokoak dira bolak, gutxi-gora behera. Ez dute askorik pisatzen, baina lurretik jasotzeko makurtu beharrak ematen zienez lanik handiena, imanaren sistema erabiltzen dute.

Jokalari taldeak tarteka jokalekuaren mantenimendu-lanak egiten dituela gogorarazi du Kuma Besek. "Jolaslekuko hondarra zaindu behar izaten da; izan ere, zakurren arrastoak topatzen dira noizean behin, edo haurrak ere jolastera sartu, hondarrarekin aztarrika egin, eta nahaspilatuta uzten dute".

Txapelketarako grina

Espazio publikoan dago kokatuta jolaslekua, eta jokalariek aitoritzen dute guztien aisialdirako lekua dela. Nahi duenak joka dezake bertan, eta alde horretatik, interesa eduki lezakeen edonori luzatu diete gonbitea, bertara dadin. Egun Astigarragatik emakume talde bat etortzen omen da goizetan. "Jende gehiago hurbiltzen hasiko balitz, eguneko orduak banatu beharko genituzke; ez dago zertan arazorik egon behar horretan".

Arratsaldero, Plazido Muxika plazan dibertsio polita ziurtatuta daukaten arren, aitortu dute pizgarri gisa, ez litzaiekeela gaizki etorriko petanka txapelketa bat. "Pandemiaren aurretik Salesiarretan antolatu zen txapelketa, eta nahiko arrakasta eduki zuen. Geroztik ez da deusik egin hemen, eta gure artean hitz egin izan dugu zergatik ez Sanmieletan antolatu antzeko lehiaketaren bat, pentanka sustatzeko".



Diotenez, ez da dohain berezirik eduki behar petanka jokalaria izateko. AIURRI



Beterri-Buruntza Mankomunitatea erabat operatiboa da honezkero; egitasmo eta zerbitzu ugari dituzte eskualdeko herritar eta enpresen eskura. BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

Abian da Beterri-Buruntza Mankomunitatea, lurraldea indartzeko urrats gakoa

Erakundearen lantaldeak zabalik ditu bulegoko ateak eta herritarrek nahiz enpresak animatu ditu eskaintzen dituen baliabideak erabiltzera, helburu honekin: lurraldearentzat etorkizun oparoagoa, ekologikoagoa eta sozialki inklusiboagoa eraikitzea elkarrekin

Txintxarri ESKUALDEA

Pausoz pauso egituratu dute 2022. urte hasieran sortutako Beterri-Buruntza Mankomunitatea, guztiz operatiboa izateraino. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerrien borondatez eratutako erakundea burubelarri ari da lurralde horretako

ko biztanleen ongizatea areagotzeko jarduera eta zerbitzu bateratuak ematen, misio honekin: Beterri-Buruntzako egoera sozioekonomikoa indartzea. Hori horrela izanik, gure lurraldea indartzeko urrats gakoa da; bestela esanda, eskualdearen garapen integralerako motorra da eta izango da.

Mankomunitatearen jardun esparru nagusiak hauek dira: herritarrek, herriguneetako negozioak eta lurraldeko enpresak. Herritarrentzako zerbitzu egonkor eta egitasmo desberdinek beraien bizi kalitatea hobetzea dute helburu, gizarteratzea eta lan munduratzeko erraztuta. Aurrena, identifikatzen dituzte

erabiltzaile bakoitzaren gaitasunak, gero prestakuntzaren bidez sustatu eta aukera egokiekin konektatzeko. Lan horren zutabea aukera berdintasuna denez, inor atzean ez geratzeko diseinatu dituzte Enplegu eta Prestakuntza saileko langileek.

Beste alde batetik, Ekintzailetza saileko beharginak negozio berriak sortu nahi dituzten pertsonen bidelagunak dira, negozio bat hutsetik abiarazi nahi dutenetatik hasita eta ondorengotza bilatzen ari den eta eskualdatua izan daitekeen jarduera ekonomiko batekin jarraitu nahi duteneraino. Dirulaguntzei buruzko informazioa eta doako aurrez aurreko formakuntzak ere ematen dituzte.

Hirugarrenik, ledozein sektoretako enpresei lehiakorrak eta iraunkorrak izaten laguntzea da Enpresa eta Sustapen sailekoen zeregina. Hiru esparru estrategiko lantzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Horietako bakoitza garatzen dute etengabeko aholkularitza zerbitzuaren, aldizkako formakuntza aurreratuaren, dirulaguntzen zein doako egitasmo zehatzen bidez. Ateak zabalik ditu lantaldeak eta herritarrek nahiz enpresak animatzen ditu baliabideak erabiltzera etorkizun oparoagoa, ekologikoagoa eta sozialki inklusiboagoa eraikitzeko.



EKINTZAILETZA

"Ezin hobeto aholkatu naute"

ANDONI ARZALLUS ARENZA

Eraiki eta konpondu. Hori da Andoni Arzallus usurbildarrak egiten duena euskal musika instrumentu tradizionalekin, Arenza tailerrean. Hobby gisa hasi zena profesionalizatzea erabaki eta orduan jo zuen Mankomunitatera, lagun batek gomendatuta "Autonomo gisa alta emateko urratsak, kontu legalak... Gezurra dirudi baina tramite asko egin behar dira eta ezin hobeto aholkatu naute hasiera-hasieratik; behar nuen informazio eta laguntza guztia eman didate. Haiengana jotzea gomendatzen dut, inolako zalantzarik gabe".



ENPRESA

"Euskarri oso irisgarria da"

EIDER MANSO FERDOUX

Hernaniko familia enpresa bat da Ferdoux Egiturak SL. Talentua kudeatzen du bertan Eider Manso lasarteoriatarrek eta esan du "zoragarria" izan dela eskualdean Beterri-Buruntza Mankomunitatea eratu izana. "Euskarri oso irisgarria da guretzat. Edozein galdera, arazo... dugula, hortxe daude". Egin dituzten proiektuen artean nabarmenena "negozioaren eraldaketa digitala" izan da: "Informazioa falta zitzaigun erabaki jakin batzuk hartzeko. Lankidetzari esker, fabrikazio prozesu osoa eta agintemahaia egin ditugu".



Doako lau zerbitzu, herritarren zein enpresen beharrei erantzuteko

Enplegu zerbitzua NORENTZAT DA?

Lurraldeko langabetuentzat edota beraien lan-egoera hobetu nahi dutenentzat.

ZER ESKAINTZEN DA?

- Lan mundura sartzeko laguntzeko bidelaguntza eta eskualdeko baliabideei buruzko orientazioa.
- Enpresentzako kontratazio dirulaguntzak eta kontratazio aukeren sustapena.
- Lan-mundura sartzeko bakarkako nahiz taldekako formakuntza eta 'mentoring' egitasmoak.
- Prestakuntza saioak: ikasketen homologazioa, lana eta ongizatea...
- Enplegu eragileen arteko harremana sustatzea.

88

langabetuk jaso dute formakuntza teoriko-praktikoa eta bidelaguntza, beraien laneratze-aukerak handitzeko

51

enpresak parte hartu dute beraien hiru lehiakortasunak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) hobetzeko egitasmoetan

Enpresa zerbitzua NORENTZAT DA?

Lurraldeko enpresentzat (industrialak nahiz herriguneetako negozioak).

ZER ESKAINTZEN DA?

- Egitasmo aurreratuak adituen eskutik digitalizazioan, berrikuntzan, jasangarritasunean zein talentuaren arloan.
- Taldekako formakuntza-saioak enpresen intereseko gaitan.
- Bidelaguntza, negozioen eskualdatze prozesuetan.
- Aholkularitza etengabea, beharrezko prozesuetan. Enpresen arteko harremana sustatzea.

Turismo zerbitzua NORENTZAT DA?

Lurraldeko turismo-eragileentzat.

ZER ESKAINTZEN DA?

- Lehiakortasuna hobetzeko egitasmoetan bidelaguntza: Euskadi Gastronomika, Familia Turismoa, Kode Etikoa...
- Turismo eskaintza bistaratzeko euskarrien zein jardunaldien kudeaketa.
- Aholkularitza etengabea beharrezko gaitan.
- Turismo-eragileen arteko harremanen sustatzea.
- Jarduera turistikoaren antolakuntza.

133

ekintzaile artatu dira beraien negozio-ideiak martxan jartzeko

46

turismo-eragileri eman zaie bidelaguntza beraien lehiakortasuna hobetzeko urratsetan

Ekintzailertza zerbitzua

NORENTZAT DA?

Lurraldean ekin nahi duen ororentzat.

ZER ESKAINTZEN DA?

- Bidelaguntza ekite-prozesu osoan zehar.
- Taldekako formakuntzak ekiteko gai gakoetan.
- Negozio berrien ikusgarritasunaren sustapena.
- Ekiteko dirulaguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza.



Ezagutu esperientzia gehiago QR kode hau sakelako telefonoarekin eskaneatuta. BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA



BETERRI BURUNTZA

Mankomunitatea

Nor gara?



Eskualdearen garapen integralerako motorra

Egoera sozioekonomikoa indartzeko eta garapenerako motor gisa jarduten dugu



Pertsonak erdigunean

Pertsonak osatzen dute gure lantaldea eta pertsonentzat lan egiten dugu



Itsasargi eta laguntzaile

Laguntza behar duten norbanako, eragile eta enpresentzako gida gara

Zer egiten dugu?



Hiru jardun esparru nagusi

Herritarrei, herriguneetako negozioei eta lurraldeko enpresei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditugu



Hitzetatik, ekintzetara

Aholkularitza, formakuntza, trebakuntza eta martxan dauden egitasmoak kudeatzen ditugu



Etorkizuneko erronkei erantzuten

Gure helburuak lan-aukerak sortzea, enpresen digitalizazioa, berrikuntza eta jasangarritasuna bultzatzea, eta erreleboa zein negozio berrien sorrera sustatzea dira, besteak beste.

BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

- Tel.: 943-24 45 23
- Akarregi Indust., 10 - 2. solairua, HERNANI
- harrera@beterriburuntza.eus





Felipe Marcos andoaindarra, Ubitarte zelaian. Elkarrizketa, luze eta zabal, Aiurri.eus webgunean irakur daiteke. **AIURRI**

“Jokalaririk aztertzea eta ebaluatzea dira nire zereginak”

FELIPE MARCOS SIMON FUTBOL-IKUSKARIA

Han-hemengo jokalaririk ibilbidea segitzea da bere zeregina. Gazte garaitako pasadizoak eta bere lanbideko ezaugarriak hizpide izan ditu elkarrizketan

Xabier Lasa ANDOAIN

Felipe Marcos Simon (Andoain, 1976) 24 urte zituela Andoain utzi eta Madrilera joan zen bizitzera; informatikari gisa banku batean lanean hasi zen. Han heldu zitzaion, laster, bere ibilbide pro-

fesionala iraularaziko zion lehen urratsa. “Herri batean jaiotakoa naiz eta herritar sentitzen naitenez, Madrilén ito egiten nintzen. Horrela, apenas bi mila biztanle dituen La Torre de Esteban Hambran (Toledo) herrixkara joan

ginen bizitzera, emaztea eta biok. Geroztik, gustura asko bizi gara han, bi seme-alabekin”.

Hain zuzen, herrixka hartako bizimodura egokitu zelarik, halako batean, informatikari lanak utzi, eta ogibidetzat hartu zuen

futbol-ikuskaritza, hots, munduko hainbat ligen, Estatuko behe mailetako partiduen eta jokalaririk zein fitxaketen merkatuaren segimendua egitea. “Jokalaririk bilatzea, horiek aztertzea eta ebaluatzea, eta azken finean, talentua antzematea dira nire zereginak. Kirol-ikuskari gisa, kirol-zuzendaririk laguntzaile izatea dagokit, batik bat; egia esan, ez dut hain gogoko futbol-munduan modan jarri den *scouting* hitza”.

Han hemen, makina bat kluben zati egin du lan Marcosek bere ibilbidean: CD Toledo, FC Fuenlabrada, Real Ávila CF, CD Numancia (2. maila), Académico Viseu eta Uniao Leiria (2. maila, Portugal), RCD Mallorca, Beroe Stara Zagora (1. maila, Bulgaria), eta, El Salvador (selekzioa). Mostolesen, futbol-eskola bat ere zuzendu izan du zenbait urtetan.

Nola arraio sartzen da bat, mundu horretan?

Futbol-ikuskaritza ez da unibertsitatean ikasten den karrera, “aritzearik aritzez lantzen doan lanbidea da, Marcosek aitortu duenez.

Marcosen kasuan, gaztetan, Etxeberririetan zelaian, erregional mailako Euskaldunako partiduekin piztu zitzaion bokazio hori. “Taldea urdinaren partidetara joaten nintzen asteburuko kuadrillarekin. Oraindik ere oroitzapenean oso gordeta daukat arratsaldero sortzen zen giro apasionatu hura, hamaika-hamaiken kontra lehia bizia, zaletuak garasika, belarraren usaina, zela-lokaztua... Futbolaren esentziatik edan nuen izugarri garai hartan. Euskaldunako jokalaririk analizatzen nituen, haiekin estatistikak egiten nituen... Orduan orain dakidana eta orain naizena izan banintz, biziki saiaturiko nintzen, konparazio batera, Kepa Ormaetxea aurrelaria merkatuan jarri eta saltzen. Hain ona zen!”.

Euskaldunako jokalaririk segimendua ez ezik, Estatuko lehen mailetako ligen segimendua ere egiten zuen Marcosek. “Don Balon aldizkaria ez ezik nonahi topatzen nituen futbol-kronikak goitiki behera irakurtzen nituen... Eta ez hori bakarrik, beti gozaten nuen taldeen edota jokalaririk gainera komentario teknikoak edonorekin partekatzeak parada nuen bakoitzean”.

Grina hori Toledora ere eraman zuen Marcosek. “Toledora bizitzera joan nintzenean, hango taldearen zelaiko harmailetan, aldamenen topatzen nituen zaletekin hasten nintzen hizketan agudo, futbola gaitzat hartuta. Fama-edo hartu nuen nonbait, eta behin, Toledoko zuzendaririk batzordeko kideek tentatu ninduten, ea zergatik ez hasi taldearentzat ikuskari gisa. Animatu egin nintzen, eta bidean batzuen laguntzari esker, nagoen tokiraino iritsi naiz”.

Futbolari ospetsua ez izanaren traba

Lanaren lanez, futbolaren unibertsitatean ikuskaririk atalean izen eta toki bat lortzen ari dela, nahiz kostata izan, aitortu du Marcosek. “Futbolari ohia izate hutsagatik errazago irekitzen zaizkie ateak batzuei, ni bezalako anonimoei ez bezala. Maila handietan jokatu izanagatik eta izena eta ospea edukitzeagatik futbolaz gehiago jakin behar duzula iruditzen zaio jendeari, eta ez du zertan hala izan beharrik. Nik, Leizaran ikastetxeko haurren taldean jokatu nuen; munduko zaletasunik handiena bai, baina horretan geratu zen nire ibilbidea. Hain makala nintzen, Euskaldunako infantiletan jokatzeko pausoa ere ez nuela eman. Baina horrek ez luke zertan baldintzatu behar gero futbola analizatzen jakiteko orduan”.

Bere txostenak gutxietsi izan dituzteneko zenbait pasadizo badauzka kontatzeko. “Bartzelonarekin edo Real Madrilarekin Europako kopak irabazitako pare bat entrenatzaileekin gertatu izan zait nik beren aurkari gainera egindako ohartarazpenei bizkar ematea, futbolaren munduan ezezagun baten sinadura zeramatelako. Esate baterako, ondo zehaztu halako taldeko jokalaria makala dela baina partiduko azken minututan zelairatzen denean beti egiten duela alboko sake luzea, eta estrategiako jokaldiari esker, gola sartu izan duela bere taldeak maiz. Bada, detaile horri kasurik ez egiteagatik, kontrako gola jasan izan du nire txostena eskuetan zuen entrenatzaile batek”.

Toledoko proiektuarekin bat, pozik

Talde batean hala bestean jardun, Portugal edo Ameriketako hain-

bat herrialdeetako ligetan espezializatu da, horrek sona pittin bat eman dio futbolaren munduan. Nahiko ohituta dago eskaerak jasotzeko, holako edo halako jokalaria jomugan ditzuten txostenak idatz ditzan, edota, halako edo holako profila daukan jokalariren bat topa dezan.

Egun, Toledo CD taldearen kirol-zuzendaritzako kidea da, "Toledoko taldean ekin nion ikuskari gisa, eta hona itzuli naiz oraindik orain. Proposamen tentagarria egin didate aurten-go denboraldi hasieran, eta ezin ezetz esan! Proiektu berri bat da, seriotasun, irismen eta ambizio handikoa, eta azken aldian ligan lehen postua lortu izana da horren erakusgarri. Oso pozik nago, nirekin gogoratu direlako. Gaztela-Mantxa, Gaztela-Leon eta Madrilgo komunitateetako futbol amateurren jarraipena egitea da nire zereginik nagusia, baina urrunagoko komunitateetara iristeko ere hartzen dut denbora".

Oro har, asteburuetan eta astegunetan banatzen da bere lana. "Astegunetan, partiden egutegi eta ordutegiak, oharren agenda eta boligrafoa eskutan, autoa hartu eta abiatzen naiz makina bat futbol zelaietara. Astegunetan berriz, bi zeregin izaten ditut batez ere: batetik, wyscout aplikaziora itsatsita egoten naiz, bertan munduko liga askoko neurketak erakusten baitzikizu nahieran; partidu osoak, jokaldiak, jokalaririk zehatzen segimenduak... Eta bestetik, txostenak idazten ditut".

Esan behar da Wyscout kanalak milaka jokalaririk profila, bideoa, datu, estatistika eta txosten jartzen dituela eskura. Ezinbesteko erreminta bilakatu zaie Marcosi bezala, mundu horretan murgilduta dabilen duten kirol-taldearen zuzendaritzak batzordekideei, entrenatzaileei, agenteei, kazetariei...

Portugaleko ligan, aditua

Estatuko hainbat komunitateko futbol-panoramaren jarraipena lehentasunatzat eduki arren, ez

"AGENDA ETA BOLIGRAFOA ESKUTAN, MAKINA PARTIDA IKUSTERA JOATEN NAIZ"



Bihotzean daraman Euskalduna taldeko presidente Jimy Brosarekin, Ubitarten. AIURRI

du ahaztu Portugaleko liga. "Toledotik oso kilometro gutxitara daukat Portugal, eta daukan geografia-forma bereziari esker, oso distantzia gutxira, eliteko hiru-lau partida begiztatu ditzaket egun berean".

Portugaleko liga zorrotz jarraitzeak, besteak beste, Bulgariako ligan ere murgiltzea ere ahalbideratu dio. Hain zuzen, hango lehen mailako Beroe Star Zagora taldearekin jardun du azken urtetan.

"Esango nuke gustura geratu zirela nik egin nizkien txosten

eta gomendioekin. Ez da puntapuntan ibiltzen den taldea Bulgariako, baina erreferentzia gisa balio dezake taldeen eta jokalariren merkatua baloratzen dituen Transfermarkt web-orri alemaniarrek dioena, asko igo dela bere kotizazioa, alegia. Bestalde, adierazgarria ere izan daiteke Bulgariako ligan azken urtetan egin diren bi aurrelarien erorketa-salmentarik errentagarrien atzean egotea Beroa. Hain zuzen, horietako bat, Sebastian Villa kolonbiarra, Argentinako Bocatik ekarri genuen bi urtetan

jokatu gabe zeramatzala, eta handik gutxira, bi milioi euro baino gehiagoren truke saldu zuen Beroek. Bestea, Leandro Godoy argentinarra, Portugalgo bigarren mailako ligatik fitxatu, eta Bulgarian 2024-2025eko goleatzailea izan ostean, 1.800.000 euroengatik saldu zuten".

El Salvadorreko abentura

Hego Ameriketako askorik iranian ez zuten abentura ere kontatzen dezaie Marcosek. David Doniga El Salvadorreko selekzioaren entrenatzaile izan zuten 2024ko urtarrean, eta hark, laguntzaile talderako hartu zuen Marcos. "Munduko hainbat ligetan sakabanatuta jokatzen dute El Salvadorreko jokalariek askok, eta horien berri emateko eskatu zidan, selekzionagarrien zerrenda osatzen joateko. Egia esan, urtea eskas iraun zuen selekzionatzaile, han. Nazioen ligara igotzea lortu zuen, baina ez zen goi arduradunen begikoa, eta kargugabetu egin zuten. Utzi izan baliote, nik uste taldeak eduki, eduki zitzaizkeela opzioak munduko txapelketan muturra sartzeko. Pena galanta hartu nuen eten ziotelako bidea!".

Mostolesen, futbol-eskolaren porrota

El Salvadorreko joan-etorri azkarra ez da izan Marcosek azken urtetan jasan duen ezusteko etsigarri bakarra. Behe mailako futbolak sustatu nahian, futbol-

eskola ireki zuten lagun batek eta biek Mostolesen, Andoain utzi eta Madrilera iritsi eta laster.

"Egundoko ilusioarekin ekin genion proiektuari. Giza balioak transmitituko zituen eskola sortu nahi izan genuen: futbola praktikatzeko gozatzea bai, baina errespetua, laguntasuna... ipar izanda. 500 bat umez jositako eskola jarri genuen abian, baina kontua da inozo samarrak izan ginela, eta jantziez arduratu hartu zuenak, zer da eta kutxa-ko dirua hartu eta ospa egin zigula! Oso egoera larria eragin zigun joko zikin horrek! Miseria gorrian ibili behar izan genuen; pentsa, zer mailataraino: goizean jokatu zuten haurren kamisetak hartu, haizetan pixka batean zabaldu, eta arratsaldean jokatu behar zuten ematen genizkien, haiekin joka zezaten! Era horretan, jakina, porrot egin zuten proiektuak".

Nolanahi ere, aitortzen du bere alde onik eduki zuela egoera hark, "asko ikasi bainuen, kolektibo batek (lan-taldea, gurasoak, haurrak...) bizi duen krisia kudeatzeko orduan. Eta ez bakarrik arlo ekonomikoan, giza harremanetan ere asko jantzi ginen, psikologo lanak egin behar izan baiten zuten zenbait haurrekin (futbola gogoko ez eta aitak derrigortuta joaten zirenak, edukazio txarreko jokabideak zituztenak, familia-arazoak zituztenak...). Halaber, guk baino gehiago zekitelako uste zuten guraso handiustek kudeatzen ere ikasi genuen zertxobait...".

Gurasoak aipatzen hasita, Marcosek futbolaren munduan murgildu denetik bizi izan duen unerik beldurgarriena gogoratu du. "Madrilen kalean, pertsona batek, dirua eta boterea duen batek, ez bat ez bi, bere semea futbol talde batean kolokatu nezan exijitu zidan. Heriotza-mehatza egin zidan nire seme-alaba aipatzearekin batera; kontuz ibitzeko ez banion kasurik egiten. Shock batean utzi ninduen, dardarka, beldurra akabatzen!".

"ARITZEAREN ARITZEZ LANTZEN DOAN LANBIDEA DA FUTBOL JOKALARIEN IKUSKARIArena"



Marcos eta bere lagunak Etxeberrieta zelaian, 80ko hamarkadaren lehen urtetan: Benito Mediero, Felipe Marcos, Francisco Limón, Iván Corbacho, Eduardo Sánchez eta Raul Mota. KANAL ON



Leizaran La Salle Berrozpe taldea, aurreko asteburuan. AIURRI



Urnieta Lanchas Bus taldea, Orioko txapelketan. UKE

Erredakzioa ANDOAIN

Lauko finalak jokatu, aurreko asteburuan, Euskal Ligan aritzeko txapelketak antolatu zituen federazioak. Andoainen eta Orion jokatu ziren bi txapelketa. Andoaingoan Leizarangoan lehiatu ziren eta, aldiz, Orion, urnietarrak. Saririk gabe geratu dira bi taldeak, baina esperientzia bikaina izan da. Eta, ziur, gero-ora begira, baliagarria.

Andoaingo Allurralde kiroldegian Urdaibai Renteria, Lacturale Bera Bera, Muskiz eta Leizaran La Salle Berrozpe taldeen artean lehia handiko partidak jokatu ziren. Andoaingo taldeak ostiralean Bera Bera garaitu zuen, larunbatean Muskizen aurka galdu eta, igandean, gol bakarragatik galdu dute Urdaibai Renteriarenean aurka.

Andoaingo kanporaketan ez zen nagusitasun argirik izan eta denek galdu eta irabazi zituzten partidak. Azkenerako, Euskal Ligatik kanpo utzi duen laugarren postuan amaitu zuten.

Urnietarrak, Orion

Asteburu bizia izan zen Urnieta Lanchas Bus taldearentzat ere, hiru egunetan hiru partida jokatu. Urnietarrak ere Euskadiko txapelketako bigarren faseetik kanpo geratu dira, Orion jokatuak igoera promozioan. Ostiralean Oriokoek nagusitasun handia erakutsi zuten. Larunbatean, aldiz, Saiekoren aurka jokatuak partida askoz ere parekatuagoa izan zen.

Onenen artean

Emozioz beteriko asteburua izan da kadete mailako eskubaloit taldeentzat. Euskal Ligan aritzeko toki bila aritu dira lehian Leizaran eta Urnieta klubetako talde bana. Ez dute lortu, baina azkenerarte lehian aritu dira

Azkenik, igandean, ezin izan zuten ezer egin Zuazoren aurkako partidari. Bizkaiko txapel-dunak dira eta Orioko azken faseko irabazleak. Emaitzak gorabehera, urnietarrak oso harro egon daitezke egindako lanaz eta talde handien aurka lehiatu izanaz. Aurrera egiteko balioko die, ziur.



Gogor lehiatu baziren ere, Euskal Ligan aritzeko ateetan geratu dira. AIURRI



Ane Benitez, erasoan. UKE



Lehiaren bi aldeak: Urdaibai, pozarren; Leizaran, burumakur. AIURRI



Lide Lizeaga, jaurtiketa egiteko prest. UKE



Azpiroz. ORIAMENDI

Ezkurra gailendu ostean, Azpirozek zain du Ansa II

Banakako Kutxabank Masters Torneoan, urnietarra asteburu honetan murgilduko da lehian. Eta parean izango duena Azpiroz izango da. Sasoiko dago nafarra, aurreko asteburuan Ezkurra garaitu ostean (30-19). Galarretan jokaturako partidaren, Ezkurra baino hobe izan zen izan zen Azpiroz, batez ere, partidaren erdialdean. 17-6ko partziala egin zuen, ordura arteko berdinketa-rekin hautsiz. Sakea izan zen gakoetakoa: irabazleak zortzi tanto egin zituen saketik. 12-10etik 24-14ra pasa zen eta, hortik aurrera, irabazleak ederki kudeatu zuen lortutako errenta. Azpirozek ezker pareta gehiago ukitu zuen eta ari aritu zen jokaldi askotan. Zailduko zaio lehia orain, ez baita edonor parean izango duena: Ansa urnietarra.



Artxiboko irudia. ZANPATUZ

Eskian trebatzeko ikastaro bikoitza, Zanutuzen eskutik

Bi ikastaro egiteko gonbita luzatu du Urnietako kirol elkarteak, hilabete barrurako

Erredakzioa URNIETA

Eskian trebatzeko aukera luza-tu du Urnietako Zanutuz men-di elkarteak. Zehazki, bi ikas-taro egiteko gonbita luzatu dute, hilabete barrurako. Aragoiko Pirineotan egiteko asmoa dute baina data gerturatu ahala –eta eguraldi-aurreikuspenen arabe-ra– aditzera emango dute toki zehatza. Garraioaz eta alojamen-duaz norbera arduratu beharko da.

Izena emateko azken eguna, batean zein bestean, otsailaren 10a izango da eta prezioa 80 eu-rokoa da. Zanutuzeko bazkide ez direnek, berriz, 100 euro or-daindu beharko dute.

Mendi-eskiko hastapen-ikastaroa

- Eguna: Martxoak 1, igandea.
- Ordutegia: 09:00-14:00.
- Ikastaroaren ezaugarriak: Tituludun irakasle baten es-

kutik, 4-5 lagunekoko taldetan egingo dute. Ikastaroa pistan aritzeko maila ona dutenentzat bideratuta dago. Bakoitzak bere materiala eraman behar-ko du. Hots, eskiko materiala, kaskoa, kranpoiak, pioleta eta segurtasuneko materiala.

Pistaz kanpo eski-jaietsiera hobetzeko ikastaroa

- Eguna: Otsailak 28, larunbata.
- Ordutegia: 09:00-14:00.
- Ikastaroaren ezaugarriak: Tituludun irakasle baten es- kutik, 4-5 lagunekoko taldetan egingo dute. Ikastaroa pistan aritzeko maila ona dutenentzat bideratuta dago. Bakoitzak bere materiala eraman behar-ko du. Hots, eskiko materiala, kaskoa eta segurtasuneko materiala.
- Ikastaro honetako parte-har-tzaileek forfaiata aparte ordain-du beharko dute.



Mendizabal-Ruiz de Infante. MASTER CUP

Garaipena Emakume Master Cup Binakako Txapelketan

Amezketako Larrunarri pilota-lekuan jokatu zen, aurreko as-teburuan, Emakume Master Cup Zirkuituko Binakako Txapelke-tako jardunaldi berria. Lehian jarraitzeko garaipena lortu zuten Ruiz de Infante eta Mendiza-balek, Zabaleta-Bertizi 22-10 gailenduta. Emaizta hori eta gero, bi bikoteak sailkapen na-gusian berdinduta geratzen dira, partida bat irabazi eta bestea galduta. Binakako txapelketa Nagusiaren hurrengo jardun-al-dia datorren otsailaren 1ean jokaturako da Durangoko Ezkur-di pilotalekuan.

Lehiaketa berean, beste par-tidan, aurrez aurre aritu ziren Etxegarai-Capellan eta Ibarrola-Erasun bikoteak. Aurrelari uhartearra eta Zizurkilgo atze-laria izan ziren garaile (22-11).



Unax Gonzalez. USARRALDE

Unax Gonzalez, Najerako IV. Torneoko txapeldun

Andoaindar gaztea Gazteleku pilota elkarte-kide da eta au-rreko larunbatean Najerako IV Torneoko finala irabazi zuen. Lehia estua izan zuen pilotariak, Bergarako pilota eskolako Inar Ilarramendiren aurka. 4 1/2ko finalean, infantil mailan, lehia estua izan zen bien artean eta, azkenerako, txapela Unax an-doaindarrak jantzi zuen (17-18).

Une gozoan da Unax gaztea. Izan ere, abenduan, Gipuzkoako txapelketako infantil mailako finala ere irabazi zuen. Orduko hura Azkoitiko Gurea pilotale-kuan jokatu zen eta aurrez aurre aritu ziren ziren Azpeitiko Adei Lizarralde (Ilunpe) eta Andoaingo Unax Gonzalez (Gazteleku). Gaztelekuko pilotariak lortu zuen txapela, hura ere, lehia estuaren ondoren.

URTARRILAK 31

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

kutxabank

MASTERS

TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (KUSKIZUN PARTIDA)

GOIKOETXEA V · GOIKOETXEA VI VS

AIESTARAN VII · ZUBIRI

2. PARTIDA (KUTXABANK MASTERS TXAPELKETA)

ANSA II VS AZPIROZ

3. PARTIDA (KUSKIZUN PARTIDA)

EZKURRA II · JUANENEA VS

ALDABE · BARRENETXEA IV

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Urnietarrak Bilboko BBK aretoan lehiatu ziren aurreko asteburuan, Developpe nazioarteko II. dantza lehiaketan. Eta nola, gainera! Lehen saria lortu dute. Honako zortzikotea igo zen oholtzara: Anitz Jauregi, Izaro Bergara, Maider Isasti, Naroa Exposito, Ane Elgarresta, Maialen Aranburu, Kyra Marruedo eta Sara Intza. Esperientzia berria izan da konpainiarentzat, ez baita lehiaketa asko egiten Euskal Herrian. Eta beste behin ere maila bikaina dutela erakutsi zuten, lehen saria irabazi baitzuten.

Ez dute bizitakoa berehalakoan ahaztuko: bertako nahiz nazioarteko dantza taldeak eza-gutzeko eta harremanak sortzeko aukera ahalbidetu die Bilboko esperientziak.

Etorkizunari begira, ikasturte amaierako ekitaldia prestatzeari ekingo diote orain. Azken urtea izanik, duten onena erakusteko gogo handiz antzematen zaie. Iritsiko da uda atariko lanketa horretaz gozatzeko aukera eta, bitartean, egunotako sariaz dastatzeko egunak dira.

Aurreko asteburuan nazioarteko saria jaso eta ordu gutxira, Naroa Exposito dantzariak bizitakoaren balorazioa egin zuen Aiurri astekariarentzat.

Zer nolako esperientzia izan da Bilbokoa? Poz handia sentitu zenuen saria jasotzean?

Adrenalina handiko unea izan zen, ez genuelako espero, egia esan. Lehian aritu ziren beste taldeak ikusita, txiki sentitzen ginen. Gainera, beste konpainiak oso ezagunak ziren. Esperientzia oso ona izan da.

Zer suposatuko du zuentzat nazioarteko saria irabaztea?

Etorkizunera begira, emanaldi gehiagorako eta beste toki batzuetatik deituko gaituztelakoan nago. Egape Dantza Taldea ezagunago izatea lortu dugu.

Nolakoa izan da "Muniskue" piezaren lanketa?

Oso gogorra izan da. Ordu asko eman dugu prestaketa lanetan, exigentzia gehiegi izan da gure buruarentzat.

"LEHIAN ARITU ZIREN GAINERAKO TALDEAK IKUSITA, TXIKI SENTITZEN GINEN"

"Egape Dantza Taldea ezagunago egitea lortu dugu, sariari esker"

NAROA EXPOSITO EDT EGAPE DANTZA TALDEA

Developpe nazioarteko II. dantza lehiaketa irabazi berritan, bizitako esperientzia ahaztezina dela dio Urnietako dantzariak



Zortzikotea, saria lortu berritan. EDT

Zuen bereizgarrietako bat dantza garaikidea eta tradiziozkoa uztartzea da. Oraingoan ere bide hori jorratu duzue?

Bai. Gipuzkoarra, Arratiako bailarakoa, *Xuletinoa*, arin-arin sartu dugu eta baita dantza garaikidea ere. Azkenen, lehiaketa profesionala izanik, puntu gehiago lortzeko estilo ezberdinak uztartzeko lanak hartu ditugu.

Lehiaketaren helburuetakoa bat hango eta hemengo dantza-eskolak eta taldeak biltzea izan da. Aukera izan duzue beste dantza taldeekin harremana izateko? Iku-si zenituzten beste taldeen koreografiak?

Bai, harreman gehiena Las Sardineras deituriko taldearekin izan dugu. Gasteizkoak dira, baina harremanetan izan gara Bilboko, Hondarribiko eta Europar barrena dabilen konpainia bateko kideekin.

Lehiaketako beste atal batzuk ikusteko aukera izan genuen, asteburuan. Klasikoa apur bat aspergarria egin zitzaigun, ez baita gure estiloa. Eta, bestela, harrituta gelditu ginen ballet dantzariak duten flexibilitatearekin. Txundigarria izan zen. Lehiaketan, oro har, maila handia zegoela esango zenuke?

Bai. Hainbat taldetan maila eta exigentzia handia antzematen zen. Aintzat hartu behar da hainbatek ibilbidea egin duela maila profesionalan. Oso maila altuko lehiaketa izan da. Guri arrotza egiten zitzaigun ez baitugu inoiz horrelako lehiaketa batean parte hartu. Eta, lehiaketa igarota, aukera oso polita izan zen guretzat.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen erronkak hurrengo hilabeteetan?

Epe motzean ez dugu lehiaketetan parte hartuko, ez baitira asko egiten Euskal Herrian. Aurrerago, ekainean ikasturte amaierako ekitaldia izango dugu. Hori ahalik eta hoberen egiten saiatuko gara, jendarteari dagiguna egiten erakusteko. Gure azkeneko urtea da eta noraino iritsi gaitezkeen erakutsi nahi dugu.

"LEHIAKETA PROFESIONALAK IZANIK, ESTILO EZBERDINAK UZTARTU DITUGU"



Hainbat eragile hurbildu zen aurkezpen-ekitaldira, astelehen arratsaldean. UDALA

Badatoz inauteriak!

Antolaketan parte hartu duten Udaleko zein herri elkarteetako ordezkariak aste honetan egindako agerraldian aurkeztu dute 2026ko Inauterien egitaraua. Osailaren 12an hasi eta 15ean amaituko dira, baina badira aurretik hitzordu gehiago

Xabier Lasa ANDOAIN
“Haur, gazte eta helduentzat askotariko jarduerak eskaintzen ditu programazioak, konpartsetatik hasi eta txarangetara”, adierazi dute Jai Batzordeko

kideek. Egun berean, Andoaingo kale eta auzoetan alaitasuna zabalduko duen programazioa banatzen hasi zen, etxek etxe, Andoaingo Udala. Axeriek Leizotz baserri-auzoan iragarriko

dute Inauterien etorrera, larunbat honetan. Ondoren, Kaldereoren kalejira txikia abiatuko da otsailaren 6an Ondarretako Herri Eskolatik abiatuta. Atariko bi hitzorduen ostean iritsi-

ko da mozorro-festa Andoainera. Zehazki, otsailaren 12tik 15era. Egun horietan, ohikoa denez, herriko eragileen partaidetza zabala: “Ikastetxeen kalejira, Olagain txistulari taldearen kalejira, haurren dantza-festa, Udal Musika Eskolako ikasle helduen mexikar doinuak, konpartsen desfilea, disko-festa, Sardinaren ehorzketa..”. Garaia girotu asmoz, Udalak deia luzatu die andoaindarrei: Inauteri-giroa herrian nabaritu dadin etxeetako balkoiak eta leihoak globoz eta koloretako oihalez apaintzeko gonbita egin dute.

Aintzat hartzeko hainbat ohar
Aurten ere, Inauterietako ar-gazki-lehiaketa antolatu dute. 14 urtetik gorako adina izan eta Andoainen bizi, ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte. Martxoaren 23a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Xehetasunak Bastero kulturegunean eta Andoain.eus gunean aurki daitezke.
Gautxori-zerbitzua herri barruko bus zerbitzua ere martxan izango da. Hain zuzen, otsailaren 14an, larunbatarekin, zerbitzu berezia iragarri du Udalak. Hala, Agustin Leitza 1 kaletik Sorabillaraino joan-etorriak egingo ditu busak.
Mugikortasun zailtasunak dituzten herritarrentzat irisgarritasun guneak jarriko dira, Goikoplazan egingo diren ekitaldietan zein Konpartsen desfilean erraztasunak izan ditzaten.
Azkenik, eraso matxisten aurkeko arreata-zerbitzua erabili nahi duenak honako telefonozenbaki honetara deitu ahal izango du: 676 567 724.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Amaia Errazkin Ezeiza
Urtarrilaren 27an Amaia Errazkin Ezeizak 29 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handia, amona Mirenen partetik.



ANDOAIN
Manex
Otsailaren 3an Manexek 6 urte beteko ditu. Zorionak! Eta, segi, jator-jator. Ondo ospatu! Muxuak, familiaren partetik.



ANDOAIN
Iker Mariezkurrena Zubillaga
Urtarrilaren 28an 13 urte, ze azkar pasatzen den denbora ta zein handia egiten ari zaren. Oso harro gaude zutaz, ederra izaten ari dira zurekin bizi-tutakoak eta oraindik falta zaiguna!!! IKARAGARRI MAITE ZAITUGU! Muxu potoloak familia eta bidelagunen partez!



ANDOAIN
Haiz Mariezkurrena Zubillaga
Urtarrilaren 30ean 10 urte, geroz eta handiago, geroz eta harroago gaude zutaz. Zorioneok gure ondoan eduki ahal zaitugunak, beti saiatua: beti langile, segi horrela ederki ari zara eta! Zein jatorra ta maitakorra zaren. Ikaragarri maite zaitugu! Muxu potoloak familia eta bidelagunen partez!



ANDOAIN
Nemesio
Nemesio Zatarainek urteak bete zituen urtarrilaren 23an. Zorionak etxekoan eta biloben partetik: Unax, Aner eta Oinatz.

Andoaingo Inauterien egitaraua

LARUNBATA, URTARRILAK 31
08:00 Puska-biltzea, Leizotz auzoan.
OSTIRALA, OTSAILAK 6
15:00 Ondarreta Herri Eskolako Kalderero txikien kalejira, Gora Kale Txiki txaranga lagunduta.
LARUNBATA, OTSAILAK 7
16:00 Inauterietako maskaren lantegia Ludotekan.
OSTEGUNA, OTSAILAK 12
OSTEGUN GIZENA
15:00 Ikasleen kalejira, txarangekin batera.

17:00 Mozorro festa eta karaokea Ludotekan.
18:00 DJ Mikeltxi, Goikoplazan.
18:30 Olagain Txistulari taldearen kalejira.
19:00 Udal Musika Eskolako ikasle helduen emanaldia.
OSTIRALA, OTSAILAK 13
OSTIRAL MEHEA
17:00 Lebiton Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa.
17:30. Inauteritako Bingo Berezia Gazte Lokalean.
20:00 Malkogarriyak, Goikoplazan.

LARUNBATA, OTSAILAK 14
11:00 Mozorroak eta konpartsak, kalez kale.
17:00 Konpartsa eta mozorro guztien Inauteri desfilearen hasiera, Gora Kale Txiki txarangarekin batera. Ibilbidea: Txitibar Plazatik Goikoplazara. Ondoren konpartsak, herrian barrena, gaueko 22:30ak arte.
22:30-02:30. DJ Nemux Goikoplazan.

IGANDEA, OTSAILAK 15
09:00-20:00 'Super blood bowl' 2026 txapelketa eta mozorro lehiaketa, Enderen Jokoa Elkartean.
12:00 Mozorroak eta Konpartsak, kalez kale.
14:00 Bazkaria, Goikoplazan. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Lekua eta txartelak aldeztu aurretik hartu beharko dira Bastero Kulturunean.
19:30 Sardinaren segizioa, Goikoplazatik abiatuta.
20:30 Sardinaren ehorzketa, Goikoplazan.

MERKATU TXIKIA

BORDA/TXABOLA
ANDOAIN
Andoain edo inguruan, borda edo txabola bat hartuko nuke animalia txikiak edo/eta baratze txiki bat jartzeko. Hitz egiteko prest. Kontakutua: ddok81617@gmail.com
SALGAI
LARRAUL
Ohe artikulatua, gorpildun aulkia eta dutxarako aulkia. Harremanetarako: 610 953 258.

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

KONTZERTUA

ANDOAIN Belharra
Kantu propioak eta Bob Dylanek idatzitako hainbat euskaratuta.
19:30, Bastero.
Urtarrilak 30, ostirala.

INAUTERIAK

ANDOAIN Axerien Puska-biltzea
Leizotz aldean ibiliko dira aurten.
08:00, Irunberri.
Urtarrilak 31, larunbata.

ANDOAIN Laguntza-lerroa
Andoain.eus webgunean oinarriak.
Inauteriak Andoainen:
Otsailak 12-15.

URNIETA Inauterietako gaia
Telebista-saioak, aurtengo gaia.
Inauteriak Urmietan:
Otsailak 14, larunbata.

IRAKURKETA

URNIETA "Liburu baby kluba"
0-3 urte artekoentzat. Haurrek heldu baten laguntzarekin joan beharko dute.
17:00, Lekaio.
Otsailak 4, asteazkena.

ERAKUSKETA

ANDOAIN Malen Agirre
"Marraztu gabeko irudiak".
18:30, irekiera-ekitaldia Basteron.
Otsailak 5, osteguna.



Pailazoen ikuskizun berriena Andoainera iristear da. GOIENA

ANDOAIN Pailazoak

"Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore arduratuta daude izarrik ikusten ez dutelako. Zer gertatu da zeruarekin? Lapurtu egin al digute? Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila... unibertsoaren sekretuak ezagutzera, urrunera begiratzuz barrura begiratzeko!"
11:30, Bastero. Otsailak 1, igandea.

BILERA

ANDOAIN Martxoak 8
Andoaingo Mugimendu Feministak deituta, martxoaren 8a antolatzeko.
Arrate, bilera-gela.
Otsailak 4, asteazkena.

JANARI-BILKETA

ANDOAIN Hurria-Sahara
Gudarien etorbideko Super Amaran elikagaiak jasoko dituzte, Sahara aldera bideratzeko.
Urtarrilak 30-31.

IRTEERA

ANDOAIN Mintzalagunak
Euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez dutenekin elkartzean datza Mintzalagun ekimenak. Oriangoan Bertxingo zentralera txangoa antolatu dute. Plazaolako bidearen sarreran jarri dute hitzordua, 10:30ean. Itzulera, berriz, Otietan barrena egingo dute. Bidean, Olagain auzo elkartean, hamaiketako egingo dute. Izena emateko: 662 132 558 / andoain@ae.eus.
Urtarrilak 31, larunbata.

Belharra, zuzenean

Country, blues eta "bluegrass" estiloak lantzen dituen taldea da Belharra eta, ostiral honetan, zuzenean ariko da Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan. "Bastero Kafe" zikloaren baitan egingo dute emanaldia, 19:30ean hasita. Bob Dylanen kantutegitik euskaraz itzulitako hainbat joko dituzte, gainera.



BELHARRA



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
La asistenta
Larunbata, 31. 19:30.
Igandea, 1. 19:30.
Asti., 2. 17:00, 19:30.

Ochiren legenda
Larunbata, 31. 17:00.
Igandea, 1. 17:00.
Filma euskaraz.



SINOPSISIA

La asistenta
Zuzendaria: Paul Feig. **Aktoreak:** Sydney Sweeney, Amanda Seyfried, Brandon Sklenar, Michele Morrone, Elizabeth Perkins, Megan Ferguson... **Generoa:** Thrillerra, psikologikoa. **Herrialdea:** AEB. **Iraupena:** 131 minutu.

Ezusteak eta emozioa

Lana galdu eta Winchestertarren luxuzko etxe kezkarriaren lanpostu bat onartzen duen neska gaztea da Millie. Laster konturatzen da etxe horretan zerbait ez dagoela ondo. Bertakoek, batez ere Nina jabeak, modu aldrebelean jokatzaren dute. Freida McFaddenaren eleberriaren egokitzapena da filma.



andoa**INDARRA**
euskaraz